



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión Económica

AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZ ONARTZEN DEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKI ZERBITZUKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN AGINDU-PROIEKTUA

ORDEN DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, DE APROBACIÓN DEL PROYECTO DE ORDEN POR EL QUE SE REGULAN LOS PRECIOS PÚBLICOS DEL SERVICIO DEL COMEDOR ESCOLAR DE LOS CENTROS DOCENTES PÚBLICOS NO UNIVERSITARIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko abenduaren 1eko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantoki zerbitzuko prezio publikoei buruzko agindu-proiektua egiteko prozedurari.

Por Orden del Consejero de Educación, de 1 de diciembre de 2023 se dio inicio al procedimiento de elaboración del proyecto de Orden sobre los precios públicos del servicio de comedor escolar de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Agindu-proiektu honen xedea da unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantokietako prezio publikoak arautzen dituen agindu berri bat egitea eta onartzea. Horretarako, zerbitzu osagarri hori berdintasun eta ekitate printzipioei jarraituz arautuko da, eta ahalik eta segurtasun juridiko handiena emango zaie zerbitzua erabiltzen duten ikasleei, haien familiei eta ikastetxeei.

El presente proyecto de Orden tiene por objeto la elaboración y aprobación de una nueva Orden por el que se regulan los precios públicos del servicio de comedor escolar de los centros docentes públicos no universitarios, regulando este servicio complementario bajo los principios de igualdad y equidad para su acceso, y dotando de la mayor seguridad jurídica posible al alumnado usuario del servicio, a sus familias y a los propios centros educativos.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua jasotzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, dagozkion negoziazio, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dagokion testu artikulatuak prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onarpena izan beharko du.

El artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio.

Horrenbestez,

En su virtud,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantoki zerbitzuko prezio publikoak arautzen dituen agindu-proiektu hau onartzea.

Primero.- Aprobar el presente proyecto de Orden por el que se regulan los precios públicos del servicio de comedor escolar de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Bigarrena.- Xedapen orokorrek egiteko prozedurak aurrera egin dezan beharrezkoak diren izapideekin jarraitzeko agintzea.

Segundo.- Ordenar que se prosigan los trámites necesarios para la continuación del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

JOKIN BILDARRATZ SORRON

HEZKUNTZAKO SAILBURUA / CONSEJERO DE EDUCACIÓN

